



Liburuak zabalduz, mundua esku artean

Azken urteotako euskal liburuek, irakurriz bidaiatzeko aukera ugari eskaintzen dute

Urtero bezala, abuztua iritsi orduko oporrak hartuko ditugu *Liluratura* gehigarrian. Irakurleei, ordea, hurrengo hilabeterako zenbait gomendio egitera ausartuko gara eta, aurtengoan, bidaiatzeko aukera gehiegirik edota sosik ezean gurean geldituko direnak izango ditugu gogoan.

Garikoitz Berasaluze / Donostia

MUNDUA EZAGUTZEKO ez da beharrezkoa batetik bestera ibiltzea. Literaturak ere aukera hori eskaintzen digu, azkoz merkeago gainera. Bidai liburuez gain, bada herrialdeak edo hiriak ezagutzeko liburu ederrik euskaraz. Azken urteotako batzuk gogoratu ditugu.

Oporretan, bidaia ederren batean galduta, nor ez ote ditu bere baitan Itxaro Bordaren hitz haiek abestu, Hertzainak-en erritmoan: «Hiri ezezaguneko karriketan zabilta...». Hirietan barrera galdu aurretik, ordea, aurtengoan irakurria diogu Arantxa Iturberi «hiri ezezagunera iritsitakoan interesgarriagoa da kafe bat hartuz ondoko mahaietan dauden hiritarren istorioak entzutea, gida ofizialeko historia buruz ikastea baino. (...) Entzunez gehiago ikas liteke hiriaz, erretratuen bidez baino». Entzunez baino gehiago, irakurriz gehituko genioke Arantxaren hitzei. Eta Harkaitz Canoren *Bizkarrean tatuaturiko mapak* libururako idatzi hitzaurrearen hitzak, gurean azken urteotan argitaratu diren liburuetarabazabalduko genituzke.

Izan ere, hamaika liburu ditugu euskaraz azken urteotan argitaratu direnak eta mundua ezagutzeko balio digutenak. Literaturaren bideetatik zerbait aldentzen dira batzuk, goi-mailako literatura dira besteak, bidai liburua zenbait. Guztiek, ordea, orrialdeak zabaldu orduko herrialde bat edo batzuk esku artean izateko aukera eskaintzen digute. Literaturan, hiriak eta bidaiak beti izan dira sendo errota. Bidaiatzeko aukerarik ez dutenek, liburuen bidez gauzatu dituzte ametsak.

Guk, iraila bitartean mundua ezagutu dezazuen, zenbait aukera eskainiko dizkizuegu. Euskaraz sortuak batzuk, itzulpenak besteak. Bidallagunak guztiak. Pessoa zioen moduan: «hain ederrak dira sekula izan ez naizen hiriak».



Literaturan, hiriak eta bidaiak beti izan dira sendo errota. Goiko argazkian, Kubako Santiago hiriko irudi bat.

● Afrika eta Ekialde Hurbila

Sahara: Tubabu (Jon Arretxe). Elkar, 1994.

Saharako harearen beroa ez da oztopo izango bertako herriaren eta herritarren ohitura eta nondik-norako berri izateko *Tubabu* liburuaren orrialdetan barrera. Gerora Arretxek landutako bidearen aitzindaria da liburu hau.

Kenia: Negarrik ez, haurra



(Ngugi wa Thiong'o; Fernando Barrena). Txalaparta, 1994.

182 orr. Njoroge eta bere familiaren istorio trajikoaren bitartez Kenia eta bertako idazle ezagunena ezagutzeko aukera dugu eleberrin honetan. «Lurrak kendu zizkionten nire aitari eta bizitza osoa eman zuen gizon txuriak noiz alde egingo zuen zain. Baina

gizon txuriak ez zuen joan nahi, eta bertan hil zen nire aita, bereak ziren lurrak txurik batentzat lantzen».

Angola: Ngungaren abenturak (Artur Pestana, Pepetela; Bego Montorio).

Txalaparta, 1997. 113 orr. Angolako idazle ezagunaren eleberririk arrakastatsuenaren (Mayombe) gazteentzako egokitzea da hau. Ngunga Caripanden, Nindan, Lumejen, Mutambon edo Cunjamban erasoan agertutako adorea gatik nabarmendu den gerrillaria da. Datosen tokitik datozela, injustizia guztiakin amaitu nahi du. Askapen gudaren bitartez, Angola barnekaldea ezagutzeko aukera eskaintzen duen liburu da hau.

Hego Afrika: Soweton

kondatuak (Ellen Kuzwayo; Aintzane Ibartzabal). Txalaparta, 1996. 154 orr.

Hego Afrika beltz garaikidearen bizi konplexua aztertzen dute Ellen Kuzwayoren ipuin hauek. Hego Afrika ez ezik, ahozko istorio-kontalariak eta bertako ohiturak ezagutzeko ere liburu atsegina da.

Mandelaren Afrika (Juanjo Olasagarre). Susa, 1998. 137 orr.



Egileak ia sei hilabete Hego Afrikan eman ondoren idatzitako liburua da *Mandelaren Afrika*. Kronika sutil hau adiskidantza prozesu gatazkatsuan dagoen Hego Afrikan barrera egindako bidaia bihurtzen da, jendeen etxeak eta auzuneak bisitatzeko eta idazleekin eta politikariek hitz egiteko aukera eskainiz.

Maroko: Bakarkako isolamendua (Tahar Ben Jelloun; Bego Montorio). Susa, 1990. 109 orr.

Bakarkako isolamendua maitasun istoria bat da. Langile magrebiar paristaratu baten eta bere gogo eta ametsean sorturiko emakumearen arteko maitasun istoria. Bere herriko kontu tikiak esango dizkio belarrira, paisaia lehorrak deskribatuko, eguzkiak erretako etxeak... Maroko eta exilioa ezagutzeko liburu ederra da hau.

Eztia eta ospina (Patxi Zubizarreta). Alberdania, 1995. 160 orr.

Maroko ezagutzeko euskaraz idatzi diren lerrorik ederrenak biltzen ditu liburu honen lehen atalak. Gasteizeraino iristen den etorkin gaztearen istorioak, gainera, milaka irakurle hunkitu ditu dagoeneko gurean.

Venezuela: Txirike-Parú

(Sabin Irizar). Erenu, 1996. 206 orr. 96-7-13ko literatura. 1936ko gerra ondoren Frantziara jaso zituzten haurren artean zen Sabin Irizar. Venezuelara iritsi eta mende honen erdi aldera Karakas bizi zen hiri guztiak topa daiteke liburu honetan.

● Asia eta Ekialde Urruna

Indonesia: Iheskaria

(Pramoedya Ananta Toer; Jose Emilio Txoperena). Txalaparta, 1995. 180 orr. Indonesiako idazlerik ezagunak eta errepresaliatuenak Biga-